GORLIZKO HUA-REN USAINA KENTZEKO SISTEMA BERRITZEKO OBRA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE ZENBAKIA: 3221.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐BAI ☒EZ
Espedientea izapidetzea	☒Ohikoa, ☐Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Izaskun Astigarraga Sastre
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea:. Obra kontratuaren xedea da bitarteko hezeak erabiliz Gorlizko HUAren usaina tratatzeko gaur egungo 40.000 Nm3/h-ko sistema berritzea, bai eta sistemaren aireztapena eta bildu ez diren eta usainak tratatzeko egungo sistemara bideratu ez diren emisio-fokuen konfinamendua ere . Kontratuaren xedean sartzen dira, halaber, egungo usaina kentzeko sistema ikatz aktibatuarekin ordeztea (12.000 Nm3/h) eta harea-kentzeko eta koipegabetzeko prozesuetako ekipoak berritzea HUAren ur-lerroan.

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Gorlizko HUAn egun dagoen desodorizazio-sistemaren eraginkortasuna murriztu egin da, aspertsoreak askotan buxatzen direlako bide kimikoko dorreen barruan, eta, ondorioz, ez dutelako ahalmen handienean jarduten. Gainera, kanpoko hormetan egiturazko akatsak agertu dira, modu naturalean zigilatu direnak usain-kentze prozesuan sortutako konposatuekin, batez ere gatzekin. Zigilu natural horietan esku ez hartzea erabaki da orain artean, egiturazko arazoak larriagotzeko aukera saihesteko. Dorreetan egiturazko akatsen bat gertatuz gero, instalazioak ez du gasak tratatzeko beste planik, eta Gorlizko HUAk usaina isuriko luke kanpora; are, langileen baldintzak okertu egingo lirateke denbora luzez.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Lizitazio honen xede den proiektuan deskribatutako zereginen gauzatzea erabat baldintzatzen dituen faktore bat dago: HUAren ohiko funtzionamenduarekin batera egin behar dira. Lanen antolaketa instalazioaren beraren ohiko jardunean interferentziarik ez eragitearen mende dago. Kontratua osorik gauzatzeak, lotetan banatu gabe, ahalbidetzen du lanak instalazioaren ohiko funtzionamenduarekin egokiago kudeatzea, bai eta ingurumen-kontroleko lanak, obretako hondakinen kudeaketa eta obretan aplikatu beharreko segurtasun- eta osasun-arauak hobeto kudeatzea ere.Era berean, obra-kontratu honetan ezin dira bereizi eragindako usain- eta ur-lerroetako ekipoak muntatzeko eta zerbitzuan jartzeko lanen fabrikazioa eta hornikuntza; izan ere, instalazioa helburu komun eta

B.- KONTRATUAREN XEDEA

bakarra duen osotasun bat da, eta erantzukizuna gauzatzaile bakarrari dagokio.

4.- CPV:

- 45252100-9 Hondakin-uren araztegiak eraikitzeko lanak
- 45252000-8 Hondakin-urak tratatzeko instalazioak, araztegiak eta hondakinak errausteko instalazioak eraikitzeko lanak
- 45252127-4 Hondakin-urak tratatzeko instalazioak eraikitzeko lanak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:
☐ BAI
☒ EZ

6.- Izaera juridikoa
☒Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	**BI MILIOI ETA LAUREHUN MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (2.400.474,80 €), BEZ GABE**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: **2.400.474,80 euro**
Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:
☐ Oroharreko prezioa
☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 169,53 623,02.

- 2026. urtea: 276.622,87 €
- 2027. urtea: 1.699.026,00 €
- 2028. urtea: 424.825,93 €

5.- Prezioen berrikuspena:
☒ BAI ☐ EZ
Aplikatu beharreko formula:

Kontratuen 9/2017 Legearen 103.5 artikuluan eta 3/2022 Legegintzako Errege Dekretuaren, 14/2022 Legegintzako Errege Dekretuaren eta 11/2023 Legearen aldaketetan ezarritakoaren arabera, obrak egiteko epea HEMEZORTZI (18) hilabetekoa denez, prezioak berrikusi egin behar dira, “Sektore Publikoko entitateen kontratuetan prezioak berrikustea” izeneko II. Kapituluan ezarritakoaren arabera.

Proiektu honetarako proposatutako formula 541 formula da, material plastikoen eta polipropilenoa eta beira-zuntzezko erretxina bezalako antzeko beste materialen eduki handia dela eta.

$$K_t = 0{,}05C_t/C_0 + 0{,}08E_t/E_0 + 0{,}15P_t/P_0 + 0{,}06R_t/R_0 + 0{,}14S_t/S_0 + 0{,}01T_t/T_0 + 0{,}51$$

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:
☐ BAI ☒EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.

C.- KONTRATUAREN PREZIOA
8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikagarria

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa: HEMEZORTZI (18) HILABETE.
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.- Bermealdia: BI (02) URTE.
5.- Kontratua exekutatzeko tokia: GORLIZKO HUA
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Ez da aplikagarria

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA
Ez da aplikagarria.

LANBIDE-GAIKUNTZA
Ez da aplikagarria.

ENPRESA-SAILKAPENA
ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria: K taldea, 8. azpitaldea, 4. kategoria.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK
1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.
BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK
a) **Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia** <u>Proiektuaren analisia:</u> Proiektuaren analisia eta azterketa. Eraikuntza-proiektuaren, eraikuntza-irtenbidearen, materialen eta gauzatzearen ezagutza maila frogatzen duten ebidentziak. Obraren funtsezko alderdiak identifikatzea.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Lizitatzaileak proiektuaren xede diren obrei buruz duen ezagutza ebaluatuko da, bai eta lanen inguruko inguruabar bereziei buruz duena ere.

Exekuzio-metodologia eta eraikuntza-prozesuak:

Eskainitako soluzioa deskribatzen duen memoria, obrak egiteko erabiliko diren metodologia, eraikuntza-prozedurak eta praktikak zehaztuz, betiere obren kapitulu berezi bakoitza kontuan hartuz. Eraikuntza-prozedurak eta lanen antolamendua azalduko dira, bai eta instalazioaren produkzio-prozesuekiko afekzioak eta interferentziak nola konponduko diren ere. Lan-metodologia eta obraren antolaketa oso garrantzitsuak dira, ezustekoak eta atzerapenak saihesteko. Eskaintzaren zehaztasun-maila eta kontraesanik edo anbiguotasunik eza. HUAren ustiapenarekin bateragarria den gauzatze-metodologia.

Lan esparrua eta justifikazioa:

Lanen programazioa, kontratuari esleitutako lantaldeen eta bitartekoen arabera justifikatuta. Garapen-maila eta koherentzia. Planteatutako lanen exekuzioaren ordena logikoa, gainjartzeak, denbora- eta/edo espazio-kointzidentziak eta plangintzako beste alderdi batzuk oinarritu hartuta, epeak betetzea egingarria dela eta obraren errealitatera egiazki hurbiltzen dela frogatuko da. Proposatutako lantaldeen zerrenda, langile kopurua, ezaugarriak eta errendimenduak zehaztuta. Lantaldeen antolaketa lanen exekuzioan.

Obrak egiten diren bitartean, bereziki kontuan hartu behar da araztegiko usain-kentze eta ekoizpen prozesuak ez eteteko beharra duela BBUPek. Horregatik, sakon aztertu behar dira planteatutako lanak eta horiek gauzatzeko bitartekoak, eguneroko jardueran interferentziak saihesteko.

Eskaintzetan aurkeztutako lanen programazioan, ez da *per se* baloratuko lizitazioaren obra-planean aurreikusitako epe totala murriztea; aldiz, bai baloratutako dira, baldin eta planteatutako hipotesiak arrazoizkoak badira eta justifikatuta badaude, hobekuntza posibleak eta jardueren aldiberekotasunak agerian uzten dituzten lizitazio proiektuaren epearen eta jardueren sekuentzien azterketak eta justifikazioak, kontuan hartuta usaina kentzeko sistemaren eta ur-lerroaren berritzea/eguneratzea araztegiak karga partzialean lan egiten duen udatik kanpo egin beharko direla. Hau da, ekainetik irailera bitarteko hilabeteetan, biak barne, ezin dira instalazio berriak desegin edo muntatu, eta ezin da usaina kentzeko eta ur-lerroko prozesuen funtzionamendua aldatu.

Ezin da errendimendu- eta funtzionamendu-probekin lotutako jardueren iraupena murriztu.

b) **Obran erabilgarri dauden bitartekoak**

Obraren organigrama:

Kontratua gauzatzeko proposatutako erakundearen organigrama eta deskribapen funtzionala aurkeztu behar dira, kontratuarekin lotutako zereginez arduratuko den lantalde teknikoa definituz eta laburpen-taula batean langileen kualifikazioa, esperientzia eta curriculum vitaea aurkeztuz. Esperientzia eta curriculum vitaea eranskin independente batean sartuko dira, “Lantaldea” izenekoa (ez da zenbatuko gehieneko orri kopururako). Antolaketaren deskribapena, gutxienez, arduradun orokorraren eta berariazko arduradunaren mailara arte egingo da, lan eta/edo tipologia bakoitzerako.

Proposatutako lantalde teknikoa lizitazio-fasean baloratuko da, eta kontratu osoan zehar egon beharko da obran. Pertsonaren bat ordezkatu behar bada, ordezten duen langileak proposamenean sartutako langilearen ezaugarri berak bete beharko ditu. Positiboki baloratuko da langile espezializatuak sartzea, bai hondakin-uren araztegiak egiten, bai muntatzen, bai martxan jartzen. Antzeko lanetan duten esperientzia ere positiboki baloratuko da. Hori bai, esperientzia behar bezala akreditatu beharko da. Ziurtagiriak

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

eranskin independente batean atxikiko dira, “Lantaldea” izenekoa (ez da zenbatuko gehieneko orri kopururako).

Lizitatzaileak lanen zati bat hirugarrenekin hitzartzeko beharra aurreikusten badu, horien izena, azpikontratatuko zereginak, azpikontratazio-ehunekoa, erreferentziak eta konpromiso-gutunak zehaztu beharko ditu.

Baliabide materialak eta beste batzuk:

- Produkzioko lantaldeen, makineriaren, bitarteko osagarrien eta lehiakideak obraren zerbitzura jartzeko konpromisoa hartzen duen gainerako elementu garrantzitsuen zerrenda, zehaztuz zeintzuk dituen bere jabetzakoak –ez badira, behar bezala funtsatu beharko du obran erabiltzeko moduan izango dituela–.
- Eskainitako materialen eta ekipoen kalitatea eta ezaugarriak. Laburpen-taula bat aurkeztuko da, proiektuaren zerbitzura jarritako obrako ekipoen zerrendarekin, barne hartuta ekipo elektromekanikoen eta tresneriaren fabrikatzailea/marka eta modeloa (gehienez bi). Ekipoen eta materialen zehaztapen teknikoak, kalitate-zehaztapenak eta ezaugarriak, eta hornitzaile nagusien hornidura-konpromisoa eranskin independente batean erantsiko dira, “Materialen eta mekanismoen zerrenda” izenekoa (ez da zenbatuko gehieneko orri kopururako). Eskaintzan zehaztutako materialen eta ekipoen fabrikatzaileak, markak eta modeloak lotesleak izango dira. Ez da onartzen ekipo bererako bi fabrikatzaile baino gehiagoko proposamenik, ezta “... edo antzekoak” bezalako adierazpen orokorrik. Zehaztutako informazioa aurkezteak ahalmena ematen dio obra-zuzendaritzari BBUPen interesentzat komenigarriena iruditzen zaion aukera hautatzeko, proposamenak lizitazio-fasean baloratu eta kontratu-fasean exijituko baitira.

c) **Ingurumen- eta gizarte-irizpideak**

Ingurumen-irizpideak:

Obraren ingurumen-plan laburtu bat aurkeztuko da, gutxienez informazio hau jasoko duena:

- Ingurumen-alderdiak identifikatzea eta ebaluatzea, obran sor daitezkeen inpaktuak aintzat hartuta.
- Ingurumen-alderdi mota bakoitzarekin lotuta obra gauzatzen den bitartean egingo den kontrol operazionala, bai eta ikuskapenen plana ere (zarata, sortutako hondakinak, kontsumoak eta beste).
- Obretan sortutako hondakinak kudeatzeko plana.
- Inpaktua minimizatzeko helburuarekin, eta, zehazki, eraikuntzako materialen eskaria (sektoreko produktibitatea eraikuntza-fasean), lehengai sekundarioen, material birziklatuen edo berrerabiltzeko prestatzeko prozesuetatik datozen materialen ehunekoa adieraziko da. 10/2021 Legearen irizpideei jarraituz, % 40ko edo gehiagoko ehunekoak soilik baloratutako dira.

Planaren espezifikotasuna baloratuko da, bai eta eskaintzaileak proposatutako ingurumen-azterketako neurriak ere, betiere proiektuaren ingurumen-azterketan jasotakoak baino hobeak baldin badira.

Irizpide sozialak:

Irizpide sozial gisa baloratuko da kontratua exekutatzeko lan-merkatutik baztertuta dagoen edo horretarako arriskua duen pertsona bat (1) gutxienez 6 hilabeterako kontratatzeko konpromisoa.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Lizitatzaileak proposatutako ingurumen- eta gizarte-konpromiso bakoitza ez betetzea zigortuko da, adjudikatutako kontratuaren zenbatekoaren % 1arekin, eskaintzaren balorazio teknikoan lortutako ehuneko puntu bakoitzeko.

d) **Prestazio osagarriak**

Eskaintzaileak prestazio gehigarriak sartzen baditu eskaintzan eta, beraz, baloratzen badira, prestazio horiek exijitu egingo dira, eta, gauzatzen ez badira, adjudikazioduna emandako puntuekiko era proportzionalean zigortua izango da; zehazki, prestazio bakoitzerako adierazitako zenbateko bera ordaindu beharko du, gehi % 50 gehiagoko zigorra ez-betetzeagatik eta kalte-galerengatik. Ez da inolako erreklamaziorik onartuko proposatutako hobekuntza bakoitzerako zenbatetsitako kostuekin lotuta.
Gehitutako hobekuntzek edo prestazio gehigarriek behar bezala justifikatuta egon beharko dute, argi eta garbi definituta eta proiektuaren prezio unitarioekin baloratuta, eta, hala badagokio, beste berri batzuekin (guztiak ere beherapenetik desafektatuta).
Lizitatzaileak zerrendatutako hobekuntzak aurkeztu ahal izango ditu, eta baloratu egingo dira. Erakunde kontratatzailearen ahala izango da interesekotzat jotzen dituen prestazio gehigarriak hautatzea eta onartzea; kasu horretan, kontratista adjudikaziodunak nahitaez gauzatuko ditu, eskainitako baldintzetan.

CFD simulazio-softwarea:

Fluidoen dinamika konputazionaleko software espezifikoa erabiltzea proposatzen da nabe nagusiko usaina kentzeko sistemaren funtzionamendua simulatzeko, helburu hartuta energia-kostuak murriztea, eraginkortasuna handitzea eta funtzionamendua optimizatzea. Diseinu- eta eraikuntza-proiektuan erabilitako eredua erabiltzea proposatu eta baloratuko da, txertatuta udako eta neguko agertokietarako benetan exekutatuko instalazioa, hau da, karga handiko eta txikiko agertokietarako.

Proposatutako soluzioak simulatu egin beharko dira, egokiak diren egiaztatzeko. Aurrekontu zenbatetsia 30.000 € Eskainitako simulazio-kopurua adieraziko da, eta kontratuaren garapenean baloratu eta eskatuko dira.

Berme-aldiaren luzapena:

Proiektu honek 2 urteko berme osoa barne hartzen du. Lizitatzaileek urtebete gehiagoko berme gehigarria eskaini ahal izango dute. Aurrekontu zenbatetsia 30.000 €

BIM metodologia:

Prestazio gehigarri hau BIM eredua garatzean eta erabiltzean datza, obra eraikitzeko eta muntatzeko fase osoan zehar (BBUPen BIM Metodologiaren Eskuliburuan adierazitakoaren arabera).

BIM metodologiako lanak kontratuaren lehen hilabetean hasi eta kontratuaren epe osoan zehar luzatu beharko dira. Adjudikaziodunak proiektuaren BIM eredua eguneratu beharko du:

- BBUPen BIM Metodologiaren Eskuliburua gehigarrian markatutako estandarrak eta DAQUASek argitaratzen dituenak aintzat hartuta egin beharko du eguneraketa, eta entregatutako ereduaren datuak eta softwarearen bertsioa eguneratu beharko ditu obra hasteko datan. Era berean, informazio gisa emandako BIM eredua xehetasunez osatu, berrikusi eta eguneratu beharko du obran zehar.

Prestazio hau baloratzeko, barne hartu beharko ditu obra exekutatu bitartean egindako hasierako BIM ereduaren berrikuspena eta eguneratzea.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Egindako hobekuntza positiboki baloratzeko, eskaintzaileak proposatzen dituen lanen irismena zehaztu beharko du eskaintzan, eta, egoki baderitzo, BEP planaren aurrerapen bat entregatuko du, BBUPen BIM Metodologiaren Eskuliburuan oinarrituta.

BEP planaren aurrerapenak argia, zehatza eta kontratuaren xedearen araberakoa izan behar du, behar bezala ordenatuta eta orrialdeka aurkeztu behar da (paperean eta formatu digitalean), eta gehienez 20 orrialde izan behar ditu (ez dira zenbatuko eskaintza teknikorako aurretik markatutako gehieneko orrialde kopururako).

Era berean, BIM metodologia antolamenduan txertatzen dela adierazi beharko da, dagokion atalean azaldutakoarekin bat etorriz.

Hobekuntza honek kontuan hartu beharko du BIM metodologia zuzendaritza teknikoak inplementatutako PLM/Windchill dokumentu-kudeaketako sistemarekin integratzea.

Hobekuntza honen aurrekontu zenbatetsia: 45.000 €.

<u>Eraikinaren barruan lan egitean zarata eta hautsa gutxitzen duen makinaria erabiltzea:</u>

Lanak herrigune baten ondoan kokatutako HUAren barruan egin behar direnez, zarata eta hautsa gutxituko duten makinak erabiltzea baloratuko da.

Hobekuntza honen aurrekontu zenbatetsia: 15.000 €.

Eranskin independenteen laburpena (ez dira zenbatuko eskaintza teknikoaren gehieneko orrialde kopururako):

- Lantaldea (mugarik gabe orrialde kopuruan).
- Langile espezializatuak (mugarik gabe orrialde kopuruan).
- Materialen eta ekipoen zerrenda (mugarik gabe orrialde kopuruan).
- Ingurumen Plana (15 orrialde gehienez)
- BEP planaren aurrerapena (20 orrialde gehienez)

Hemen deskribatzen den dokumentazio tekniko guztiak argia, zehatza eta kontratuaren xedearen araberakoa izan behar du, behar bezala ordenatuta eta orrialdeka aurkeztu behar da (formatu digitalean), eta gehienez 60 orrialde izan behar ditu, honako ezaugarri hauek beteko dituztenak:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroartea: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, kanpoan geratuko dira azala, aurkibidea eta kontrazala.

Eskaintzaren azterketan ez da kontuan hartuko adierazitako gehieneko kopurua gainditzen duten orrialdeetako edukia (eranskinetarako adierazitakoa salbuetsita), eta adierazitako ezaugarrietara egokitzen ez diren orrialdeetako edukiarekin ere berdina gertatuko da.

Salbuespen gisa, DIN A-3/A-2/A-1 formatuko orriak erabili ahalko dira aurkeztutako dokumentazioak horrela eskatzen duenean (planoak edo diagramak eta lan-programak), eta orrialde bakar gisa kontabilizatuko dira.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Eskainitako prezio unitarioen zerrenda

- Proiektua osatzen duten unitate guztien exekuzio materialaren prezio unitarioen zerrenda, letraz eta zenbakiz idatzita.

  Unitatearen zuzeneko kostuari % 7 gehituz lortuko dira prezio horiek, zeharkako kostu gisa.

  Enpresa lehiatzaileak konpromisoa hartuko du, adjudikaziodun izanez gero, Prezioen 2. Taula eratzeko, bere eskaintzan agertzen den prezio unitarioen zerrendan oinarrituta, dokumentu horren helburuetarako egokia den egitura batekin. Azkenik, obren zuzendaritzari aurkeztuko zaio, Zuinketaren Egiaztapenaren Akta sinatu eta lehen hilabetea amaitu baino lehen.

- Aurkeztutako prezio unitarioak kalkulatzeko erabilitako eskulanen, makinen eta materialen oinarrizko prezio unitarioen zerrenda.

Eskainitako kontratuaren aurrekontua

- Exekuzio materialerako aurrekontua, enpresa lehiatzaileak eskainitako prezio unitarioak lizitazio-proiektuaren neurketei aplikatzean oinarrituta egina. Aurrekontu hori PRESTO programan gauzatu beharko da, eta paperezko edizioaz gain, euskarri magnetikoko bertsio bat ere aurkeztu beharko da. Aipatutako programak ez izanez gero, BC3 formatuan aurkeztea ere onargarria izango da.

- Obra-exekuziorako aurrekontua, exekuzio materialerako aurrekontuari «Gastu Orokorrak eta Onura Industriala» kontzeptua (% 19) aplikatzearen ondoriozkoa.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒Kontratazio-mahaia

Lehendakaria/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral.

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Kideak (Titularrak/Ordezkoa):
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria (Titularra/Ordezkoa):
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren beherapen-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honako balio hauek esleituko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax ..... 50 puntu
(Bmax + BBB) / 2 ..... 48 puntu
BBB ..... 47 puntu
0,8 x BBB..... 46 puntu
0,6 x BBB..... 44 puntu
Lizitazio-aurrekontua..... 0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren beherapen-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko beherapen-ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona.
- BBB: Batez besteko beherapen-ehunekoa, lizitatzaile bakoitzaren beherapen-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta. Hori horrela, Bi beherapen bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi <= 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi <= 0,8 \times BBB$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0{,}6 \times BBB)}{0{,}2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0{,}8 \times BBB < Bi <= BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0{,}8 \times BBB)}{0{,}2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi <= (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta Pi puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTOS

- Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia 28 puntu

  - Proiektuaren analisia 10 puntu
  - Exekuzio-metodologia eta eraikuntza-prozesuak 9 puntu
  - Lan-programa eta justifikazioa 9 puntu

- Obran erabilgarri dauden bitartekoak 14 puntu

  - Obraren organigrama 7 puntu
  - Baliabide materialak eta beste 7 puntu

- Ingurumen- eta gizarte-irizpideak 4 puntu

  - Ingurumen-irizpideak 2 puntu
  - Irizpide sozialak 2 puntu
  -

- Prestazio osagarriak 4 puntu

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- CFD simulazio-softwarea 1 puntu
- Bermearen luzapena 1 puntu
- BIM metodologia 1,5 puntu
- Eraikinaren barruan lan egitean zarata eta hautsa gutxitzen duen makinaria erabiltzea 0,5 puntu

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzaileak duen egoera kontuan izanik:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaile egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaile egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaile edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:
Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK
Lizitatzaileak proposatutako ingurumen- eta gizarte-konpromiso bakoitza ez betetzea zigortuko da, adjudikatutako kontratuaren zenbatekoaren % 1arekin, eskaintzaren balorazio teknikoan lortutako ehuneko puntu bakoitzeko. Eskaintzaileak prestazio gehigarriak sartzen baditu eskaintzan eta, beraz, baloratzen badira, prestazio horiek exijitu egingo dira, eta, gauzatzen ez badira, adjudikazioduna emandako puntuekiko era proportzionalean zigortua izango da; zehazki, prestazio bakoitzerako adierazitako zenbateko bera ordaindu beharko du, gehi % 50 gehiagoko zigorra ez-betetzeagatik eta kalte-galerengatik. Ez da inolako erreklamaziorik onartuko proposatutako hobekuntza bakoitzerako zenbatetsitako kostuekin lotuta.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA
Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko asegurua dagoelako egiaztagiria. Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA
Ez da aplikagarria

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA
☒Hasieran aurkezteko betebeharra ☐Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA
Ez da aplikagarria

Q.- ERREKURTSO BEREZIA
☐ BAI ☒ EZ

R.- BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN
Proiektuaren dokumentazioak obra oso bat deskribatzen du. Horrenbestez, lotesleak eta osagarriak dira planoetan, memorian, preskripzio teknikoen agirian eta aurrekontuan agertzen diren dokumentu grafikoak eta idatziak. Dokumentuak bat ez badatoz, zuzendaritza fakultatiboari dagokio obrak behar duen eraikuntzako koherentzia- eta arrazionaltasun-irizpidea ezartzea. Kontratistei eskaintza betetzea errazteko helburu bakarrarekin, honako hauek jartzen dira euren esku: • Aurrekontua PRESTO eta BC3 formatuetan. • Proiektua idazteko erabilitako BIM eredua. Hori bai, aintzat hartu behar da ez dutela baliorik kontratu-ondorioetarako. Zuinketaren egiaztapen-akta sinatzen denetik kontatzen hasita hilabete igaro baino lehen, enpresa adjudikaziodunak lan-programa entregatu beharko du, baloratuta. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Adjudikaziodunak obrak hasi aurretik obren Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztuko du, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuz.

Proiektuaren Segurtasun Azterketan agindutakora egokituko da Laneko Segurtasun eta Osasun Plana, aipatu planaren betetze-mailaren auditoria egin eta bidaltzea errazteko.

Zehazki, enpresa kontratistak “Eraikuntza-obretan segurtasuna eta osasuna bermatzeko lan-prozedura normalizatua” dokumentuan xedatutakoa bete beharko du (proiektuaren segurtasuneko eta osasuneko gehigarrian jasota dago).

INGURUMENAREN KUDEAKETA

Obren enpresa adjudikaziodunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ingurumen-politika eta ingurumen-arauak ezagutu eta onartzeko konpromisoa hartu beharko du. Era berean, obrak hastean, adjudikaziodunak “BBUPekin hartutako ingurumen-konpromisoa” dokumentua bete, sinatu eta BBUPen obra-zuzendaritzara bidali beharko du. Era berean, “Proiektuen eta obren ingurumen-kudeaketako prozedura espezifikoa” dokumentuan xedatutakoa bete beharko du (proiektuaren memoriaren “Ingurumen-jardunbide egokiak” 16. zenbakidun gehigarrian eranskin gisa jasota dago).

INSTALAZIO ELEKTRIKOA

Elektrizitate- eta kontrol-instalazioa gauzatzeko, jarraituko dira bai lan-programa bai elektrizitate- eta kontrol-instalazioen gehigarrian jasotako plangintza espezifikoa, lanak behar bezala eta modu ordenatuan eta sekuentzialean gauzatzen direla bermatzeko beharrezko jarduera guztiak jasotzen dituena. Plangintza horretan bertan zehazten dira kontrol-puntuak eta zuzendaritza fakultatiboa osatzen dutenen edo harekin lankidetzan ari direnen onarpena.

ZERBITZUAN JARTZEA

Enpresa adjudikaziodunak, ekipoak eraiki eta muntatzeko fasean, zerbitzuan jartzeko plana egin beharko du. Eraikuntza-fasea amaitu baino hilabete lehenago entregatuko zaio obra-zuzendaritzari. Planarekin batera, ustiapeneko eskuliburua ere sartuko da. Zerbitzuan jartzeak, barne hartu behar ditu bai zerbitzuan jartzeko etapa bai errendimendu/funtzionamendu probak egiteko etapa. Etapa horietan honako hauek sartuko dira: ekipo guztiak abiarazi aurreko eta ondorengo probak; instalazio guztiak batera funtzionatzea lortzea; obrak eta instalazioek espero eta exijitutako egonkortasuna, fidagarritasuna eta errendimenduak eskaintzen dituztela bermatzeko probak eta gainerako egiaztapenak.

Ekipoak fabrikatu ondorengo adostasun-probak fabrikazio-lekuan egingo dira, lan-ordutegi normalean. Lizitatzaileak hirugarren inpartzial baten desplazamendua sartu beharko du eskaintzan, probak eta emaitzak egiaztatzeko.

Ekipo guztiak muntatu ondoren, instalazio osoa zerbitzuan jarriko da, eta probek proiektuaren lan-programan adierazitako iraupena izango dute.

Instalazioa osatzen duten ekipo guztiak zerbitzuan jarri ondoren, egin beharreko instalazio elektrikoa barne, kontratistak errendimendu-probak egin beharko ditu, lizitatzaileek eskaintzan bermatutako balioak betetzen ote dituzten zehazteko.

Errendimendu-probek behar besteko iraupena izango dute, bermatutako balio guztiak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko neurketa guztiak egin ahal izateko. Kontratistak errendimendu-probetan eragina duten ingurumen-baldintzak korrelazioan jarri ahal izateko beharrezko datuak eman beharko ditu.

Obraren enpresa adjudikaziodunak errendimendu-probak egiteko beharrezko baliabide osagarriak bere kontura aurreikusi beharko ditu, bai eta HUAn daudenetatik kanpoko beharrezko edozein neurketa, analisi edo ekipo-instalazio ere.

Lizitatzaileak eskaintzan zehaztu behar ditu egin beharreko errendimendu-proben xehetasunak, proben gutxi gorabeherako iraupena eta probak egiteko zer langile espezializatu jarriko dituen.
Ekipoak jaso ahal izateko, errendimendu-proben emaitza BBUPek onartu beharko du, aintzat hartuta dokumentu honetan zehaztutakoa.

Bermatutako balioak betetzen ez badira, kontratistak hilabete bateko epea izango du beharrezko aldaketak egiteko; behin hilabete hori igarota, probak errepikatu egingo dira. Ez-betetzeek irauten badute, aurreikusitako zigorrak aplikatuko dira.

INSTALAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA GERATZEA

Proiektuaren lan-programan jasotzen denez, lan-programaren helburuen artean dago instalazioaren funtzionamendu normalari ahalik eta gutxien eragitea, eta, horretarako, ekipoak eta ordutegiak ekoizpen beharretara eta baldintza klimatologikoetara egokituko dira ahal bezainbeste, eta ekoizpen-lerroko geldialdi partzialak edo totalak ahalik eta gehien minimizatuko dira.

Aurreikusitako geldialdiak, geldialdiek zer eremuri eragiten dieten eta geldialdi bakoitzean egin beharreko lanak, proiektuaren lan-programaren gehigarrian daude deskribatuta. Lizitatzaileak behar bezala planifikatu beharko ditu geldialdiak, ahalik eta gutxien izan daitezen eta HUAren ahalik eta zati txikienari eragin diezaioten. Usaina kentzeko eta tratamenduko lerroei eragiten dieten geldialdiak ezingo dira ekainetik irailera bitartean egin, biak barne. Edonola ere, obra-zuzendaritzak xedatzen duenaren eta ustiapeneko arduradunen iritzien arabera jardungo da beti.

Soilik beharrezkotzat eta nahikotzat jotako geldialdiak egin ahalko dira. Adjudikaziodunak instalazioaren funtzionamendua gehiagotan geratzea beharrezkoa dela uste badu, aldez aurretik justifikatu beharko du eta geldialdiak egiteko baimena jaso beharko du.

BAIMENAK ETA LIZENTZIAK

Enpresa adjudikaziodunak udal-baimen guztiak kudeatu beharko ditu, obrarako udal-lizentzia izan ezik, aldamioak, pasabideak, hesiak jartzeko, harguneetarako galtzadak irekitzeko, eta abarretarako, eta haren kontura izango dira, oso-osorik, nola tasak, hala horien kudeaketak dakartzan gastuak. Udalak obretarako udal-lizentzia gisa fakturatutako zenbatekoa soilik geratzen da aurreko gastutik kanpo, hala badagokio.

Era berean, bere gain hartuko ditu beste erakunde batzuen —hala nola Foru Aldundiaren– baimenak izapidetzeari dagozkion gastu guztiak –adibidez, abalak—, bere eskumeneko arloetan jazotako gurutzaketak eta/edo jarduketak direla-eta.

BESTE BATZUK

BBUPen barnean eskumena duten zerbitzuek kontrolatu eta ikuskatuko dituzte lanak, obra-zuzendaritzaren bitartez, zeinak ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo baitu kontratatutako obra behar bezala gauzatzen dela, Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 4. eta 24. klausuletan xedatutakoari jarraituz.

Proiektuaren Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Azterketan eta dagokion planean zehaztutakoa nahitaez bete behar du kontratistak, honako hauek adierazteko beharrezko seinaleei dagokienez: obrarako sarbidea, lan-eremuko zirkulazioa, eta lanak egitearen ondoriozko balizko arrisku-puntuak, bai lan-eremuan bertan, bai lan-eremuaren mugetan eta inguruetan ere. Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 23. klausulan aipatzen diren aginduak ere bete behar ditu.

Obra-lekuak behar bezala mugatuko ditu itxura perimetral batek, BBUP modeloko txapa itsu batekin egingo dena, lanak erabat isolatuz HUAren gainerako prozesuetatik (zeharkako kostuetan sartuta dago). Zuzendaritza fakultatiboak baliozkotuko du lekua, bai eta obraren barrura sartzeko sarbideak ere. HUAren ekoizpen-prozesuek eta prozesuen funtzionamenduak eta mantentzeak, bai plangintzak bai obra-lekuen mugaketa aldatzera eta egokitzera behartu dezakete. Edozein kasutan, inguruabar horiek ez dira inolaz ere izango BBUPen aurkako erreklamaziok jartzeko ez argudio ez justifikazio.

Enpresa kontratistak bere kontura instalatu beharko ditu bulegoetarako, biltegietarako, estalpeetarako, instalazio sanitarioetarako eta bestelako beharretako gainerako behin-behineko eraikin osagarri guztiak. Instalazio osagarriek bulego bat eta bilera-gela bat izango dituzte, obra-zuzendaritzak eta dagokion laguntza teknikoak erabiltzeko.

Ahal dela, proiektu-planoetan jasota dauden instalazio osagarriak kokatzeko lursailak kontratistaren esku utziko dira, betiere BBUPren irizpidearen arabera zehaztuko bada ere lursailon kokapena eta tamaina. Lursailen egokitzapena (berdintzea, trinkotzea eta beste) kontratistaren kontura egingo da.

Lanak egiten diren bitartean bakarrik lagako dira beharrezko lursailak kontratistaren esku, eta, behin lanak amaitzean, lursailak utzi, instalazio osagarri guztiak kendu eta lursailak jatorrizko egoeran utzi beharko ditu kontratistak (BBUPek espresuki kontrakorik adierazi ezean). Gastu guztiak kontratistaren kontura egingo dira.

Obra-zuzendaritzak adierazitakotik kanpo lursailak okupatu edo lanerako gune bezala erabiltzeko, ezinbestekoa izango da obra-zuzendaritzaren baimena edo aginduak jasotzea. Enpresa kontratistak argi eta garbi identifikatuko ditu obra-etxolak eta instalazio osagarriak, kartelak jarrita. Gutxienez honako informazioa jaso behar dute kartelek: enpresaren izena, enpresaren logotipoa, eta obra-etxola edo instalazio osagarriaren arduraduna eta harremanetarako telefonoa. Kartelak, gutxienez, A3 tamainakoa izan beharko du.

Era berean, BBUPen ohiko funtzionamendua, mantentze-lanak edo bestelako obrak oztopatzen baditu kontratistaren elementuren batek, lekuz aldatu eta esandako lekura eraman beharko du, BBUPentzat inolako kosturik gabe.

Obrak amaitu eta 10 egunera kontratistak aurreko paragrafoetan xedatutakoa bete ez badu, obra-zuzendaritzak hirugarrenek lurra garbitu eta soberako elementuak kentzea agindu ahalko du, kontratistaren kontura.

Adjudikaziodunak larrialdietarako talde bat eduki beharko du obrek irauten duten bitartean, asteko zazpi egunetan eguneko 24 orduetan obraren zuzendaritzaren edozein deiri erantzuteko gai izango dena; gehienez ere bi orduko epean bertaratu beharko du premia handiko larrialdietan, eta 24 orduko epean gainontzekoetan, behar den ekipo materialarekin eta lantaldearekin. Larrialdietarako taldearen kostua eskainitako prezio unitarioetan sartuta dago.

Lanak lanegunetan baina BBUPen lan-ordutegitik kanpo egiten direnean (19:00etatik aurrera), edo BBUPen hitzarmenaren arabera asteburu edo jaiegun jotako egunetan, BBUPek aldez aurretik onartu beharko ditu lanak; era berean, prebentzio-baliabide batek NAHITAEZ egon beharko du obran, are, pertsona horrek etengabe egon beharko du lan-eremuan bertan.

Enpresa lizitatzaileek premisa hau hartu beharko dute kontuan eskaintzan: instalazioak une oro egon behar du funtzionatzen, eta jarduketa batzuek hiru txandatan lan egitea ere exijitu dezakete, geldialdiak eta ekipoak zerbitzutik kanpo dauden tarteak minimizatzeko. Inguruabar hori exijitu ahal izango da, eta, ondorioz, enpresa lizitatzaileek behar bezala hartu beharko dute kontuan eskainitako prezio unitarioen balorazioa egitean; izan ere, ezingo du erreklamaziorik egin, eta ez da inolako ordainketa gehigarririk egingo.

Obrarako edateko uraren hornidura BBUPen jabetzakoa den Gorlizko HUAren barne-instalaziotik egingo da. Edateko ura (edo beste mota batekoa) hartzeko aukera erraztuko zaio kontratistari, adierazten zaion puntuan (kontratistak hargune bat jarri beharko du hurrengo kontsumitzailearentzat). Hori bai, kontratistaren erantzukizuna izango da ura bere lan-eremuetara banatzeko sarea atontzea, eta bere kontura eta arriskura egingo du, betiere indarrean dauden erregelamenduak eta segurtasun-arauk betez. Era berean, konexio-puntu bat adieraziko zaio kontratistari, bertaraino atondu dezan bere instalazioen saneamendu-sarea, eta bere kontura eta arriskura egingo du, betiere indarrean dauden erregelamenduak eta segurtasun-arauk betez. Kontratistak obran sortutako ur-kontsumoa kontabilizatuko du, eta datuak BBUPi helaraziko dizkio, aintzat hartu ditzan bai Ingurumen Kudeaketako Sisteman bai fakturazio xedeetarako. Horretarako, aldez aurretik ez badago, kontagailu bat instalatu beharko du obraren hargune orokorrean.

Obrarako hornidura elektrikoa kontratista adjudikaziodunaren kontura izango da. Kontuan hartu beharko da ezingo dela egun martxan dauden instalazioetatik tentsio elektrikorik hartu, eta, beraz, kontratistak obrarako behar duen energia elektrikoa sortu beharko duela, bai lanak egiteko, bai soldatzeko, bai argiztapenerako, bai lehorketarako, bai makinentzat, bai zulagailuentzat... Salbuespen gisa, HUAren instalazioetatik hornidura elektrikoa bideratzea baimendu ahal izango da, betiere BBUPek ezarritako baldintzetan eta kontratistaren kontura izanik hornidura bermatzeko beharrezko ekipo eta instalazio guztiak. Behin-behineko instalazio hori legeztatu egin beharko da, BBUPi dagokion dokumentazioa aurkeztuta.
Kontratistak obran sortutako elektrizitate-kontsumoa kontabilizatuko du, eta datuak BBUPi helaraziko dizkio, aintzat hartu ditzan Ingurumen Kudeaketako eta Kontroleko Sisteman. Horretarako, aldez aurretik ez badago, kontagailu bat instalatu beharko du.

Lanak hasten direnetik instalazioak kendu arte, kontratista izango da bere obrako leku eta instalazio guztiak zaintzeaz arduratuko den bakarra, gerta daitezkeen ezbeharrak eragozteko (suteak, uholdeak, lapurretak eta beste). BBUPek ez du bere gain hartuko instalazioan gerta daitezkeen lapurreten edo kalteen erantzukizunik.

Enpresa adjudikaziodunak –aurretik lizitatzailea–, HUAren ustiapen-zuzendaritzaren beharren mende jarri beharko ditu bere eskaintza eta lanak, instalazioak bere funtzionamendu normalarekin jarraituko baitu. Premia horretatik eratorritako errekerimenduak ahalik eta lasterren jakinaraziko ditu obra-zuzendaritzak.

Aipatutako beharrak hainbat baldintza ekarriko ditu: ordutegi eta egoera jakin batzuetan lan egiteko ezintasuna, programatutako eta hasitako lanak atzeratzea, zerbitzu publikoa mantentzeko premiazko beharrizanak direla-eta obrak partzialki edo osorik geldiaraztea, lanak gaueko orduetara eta/edo emari txikiagoko orduetara aldatzea, lanak zatika eta tarte jakinetan egitea, lanak eguraldiaren arabera programatzea, instalazioaren sarreretan eta zirkulazioan obraren irisgarritasunean eragin dezaketen aldaketak egitea, zaratak eta bestelako egoera gogaikarriak, lanak uztera behartzen duten larrialdi-simulakroak eta beste.

Adjudikaziodunak ezingo du inolako zenbatekorik erreklamatu, aurreko inguruabar guztiek eta gerora sortutako beste batzuek, BBUPen kontroletik kanpokoak, eragin diezazkioketen kalteengatik. Eskakizun horiek eragiten duten kostua aurrekontuko obra-unitate guztietan jasanarazi behar da, lanak egiteak berak dakarren “berezko” zerbait bezala.

Etenik gabe martxen den HUA baten barruan egingo den eraikuntza-obra baten aurrean gaudenez, oso garrantzitsua da aintzat hartzea bertako prozesuak ez eragitea, aldatzea eta etetea funtsezkoa dela. Horregatik, jarduera guztien plangintza behar besteko aurrerapenaz egingo da, eta obra-zuzendaritzak ematen duen baimena eta jarraibideak izango dira kontuan.

Hori bai, aintzat hartu behar da zerbitzu publikoa ematea eta araztegiaren barruko jarduketa- eta mantentze-lanak egitea lehenetsiko dela beti aldi berean egiten ari den beste edozein jardueraren gainetik, adibidez obra gauzatzea. Horregatik, instalazioko jardueren plangintza lehenetsiko da obrako jardueren gainetik, eta enpresa adjudikaziodunak ezingo du inolako erreklamaziorik aurkeztu arrazoi horregatik.

Instalazioa BBUPen Galaxia gainbegiratze- eta kontrol-sisteman integratzeaz arduratzen den enpresak, ARCHESTRA ziurtagiria izan beharko du.

Adjudikaziodunaren obra-organigramaren barruan elektrizitate-, programazio- eta kontrol-lanen arduradun bat egongo da, gutxienez Ingeniaritza Tekniko Elektrikoko titulazioa izan beharko duena.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak jarduteko eta/edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio obra honi, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

Ordezkari horrek eta enpresaren adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.